


1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

JULEN IRRIBARRETSUA

Egun batean Shilin, Eriz, Ian, Julen eta Cristian leihaketa bat egitea pentsatu zuten.

Txapelketaren epailea Ian zen. Guztiak kale luze batean jarri ziren eta korrika helmugaraino joan ziren. Helmuga eskolako atean zegoen. Bidaia luzea zen eta aldapatsua.



**Aldapa gora korrika egiten zeudenean,
Shilinek lagunei txiste bat kontatu zien.
Txistea laburra, baina oso dibertigarria zen.**

**Eriz, Cristian eta Julen gelditu ziren eta
barrezka hasi ziren. Ezin zuten korrika egin,
barrezka eta barrezka geratu ziren mutilak
aldapan.**



**Orduan, Shilinek korrika arinago egin zuen
eta helmugara lehenengoa heldu zen.**



**Shilinek irabazi zuen,
Shilin txapelduna zen.
Beste guztiek esan
zuten:**

-Ez, ez eta ez. Tranpa izan da- esan zuen Erizek.

-Ez du balio!- oihukatu zuen Cristianek.

-Shilinen txistea oso ona izan da eta barrezka geratu gara.- esan zuen Julenek.

Shilin lurrera bota zen oso haserre.

Ianek, epaileak, esan zuen:

-Ez du inork irabazi! Berriro egingo dugu korrika!



Orduan Julen barrezka hasi zen. Mutil guztiak harrituta geratu ziren Juleni begira.

-Zergatik egiten zuen barre Julenek?

Shilinen txisteaz gogoratzen ari zelako oraindik, barre egiten zuen Julenek.

Azkenik, Shilinek beste txiste bat kontatu zuen eta denok barrezka hasi ziren.



2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

1.- _____ antolatu zuten.

2.- Lagunak _____ jarri ziren.

3.- Helmuga _____ zegoen.

4.- Shilinek _____ kontatu zuen.

5.- Shilin _____ heldu zen.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN.

Lagunek margo txapelketa antolatu zuten.

Gelako guztiek parte hartu zuten txapelketan.

Shilinek txistea kontatu zuen.

Txapelketa aldapa behera izan zen.

Ian txapelketaren epailea da.

EGIA	GEZURRA